## UNIBERTSITATEKO MASTERREN IRAKASKUNTZA- ESKAINTZA PLANIFIKATZEKO EGUTEGIA (2020/21 IKASTURTEA)

| FASE | Deskribapena | DATAK / EPEAK | OHARRAK |
|---|---|---|---|
| 1. FASEA : MASTERREN IRAKASKUNTZA ESKAINTZAREN GRABAKETAREN HASIERA | Hasieran baimendutako eskaintzaren jakinarazpena eta | 2020ko **maiatzaren 5eko astean** | Bai aurreko ikasturteko irakaskuntza-eskaintza zein aurreko[2] ikasturteetako matrikularen arabera gehienezko hautazkoa arautzen duen arautegi berria kontuan hartuta, fase honen hasieran:<br>- Dagoeneko baimendu dira derrigorrezko irakasgaiak eta 2019/20an *matrikula* › 4 baldintza bete duten hautazkoak.<br>- Masterren arduradunei zenbat hautazko kreditu eskaini ahal izango duten jakinaraziko zaie. |
| | Zentroetako eskaintzaren arduradunek grabaketari ekitea (taldeak eta ordutegiak)[1] | Hasieratik 2020ko **ekainaren 26ra arte** | Informazio horretaz baliatuz, **masterren arduradunek** eta **irakasgaien sail/institutu arduradunek** baimendutariko eskaintzaren egokitzapena berraztertuko dute eta:<br>- **Zentroek** irakasgaiei (nahitaezkoei zein hautazkoei) dagozkien taldeak sortu beharko dituzte (GAURren)[1]<br>- Master askoren atxikimendua 2019/20an MDe-tik beste Zentro batera aldatuko bazen ere, litekeena da ikasketak 2018/19an (edo lehenago) abiatu zituzten ikasle batzuek oraindik ere matrikula MDen egin behar izatea. **Batzorde Akademikoak** irakasgairen bat eskaintzea nahitaezkoa dela jotzen badu, hura eskatu beharko du, Plantilla Antolatzeko Zuzendaritzak irakasgaia sortu (eta taldeka) dezan. |
| 2. FASEA: IRAKASKUNTZA ESKAINTZARI BURUZKO ALEGAZIOAK | Master arduradunek prestaturiko irakaskuntza-eskaintzaren gaineko alegazioak, Zentroko arduradunen bitartez | 2020ko **ekainaren 5era arte** | **Masterreko Batzorde Akademikoak**, baimenduta ez dagoen hautazkoren bat eskaintzea beharrezkotzat jotzen badu, sortzeko eskaerak edo alegazioak prestatu ahal izango dituzte, eta Zentroen bitartez bideratuko dituzte Irakasleen Plantilla Antolatzeko Zuzendaritzara (hautazko berriak sor daitezke, baimendutako irakasgai bat ordeztuz). |
| 3. FASEA : ALEGAZIOAK AZTERTETZEA | Alegazioak aztertzea | 2020ko **ekainaren 26ra arte** | Aurkeztutako alegazioak aztertuko dira eta behar diren baimenak emango dira. |
| 4. FASEA: BEHIN BETIKO EGOKITZAPENA | Behin betiko egokitzapena | 2020ko **ekainaren 26ra arte** | Behin betiko egokitzapena egingo da eta sailek/institutuek irakaskuntza-enkargua grabatuko dute. |

1. Oharra: Zentroek grabaketa egiteko orduan Irakaskuntza eta Ikerkuntza Lantaldearen Zuzendaritzak prestatutako eskuliburua erabili dezakete. Dokumentazio hori aurkituko duzu Unibertsitateko web-orrian, Irakasleak atalean eta Irakaskuntza Plangintza sartuz, hurrenez hurren.
2. Oharra: Zure eskura hurrengo estekan http://www.ehu.eus/eu/web/iip/irakaskuntza-plangintza